

«%100 OION» PROIEKTUA

Mursegoren diskoa, bizikidetza hobetzeko elkarlanari oparia

Oioneek 3.217 biztanle ditu, horietatik %15,81 etorkinak, Maroko eta Pakistangoak bereziki. %25 inguruko langabezia ere badu Arabako Errioxako herriak. Txikia izateak agerikoago egiten ditu bertan bizi diren komunitate ezberdinak eta indar handiagoz eusten dio norberak bereari. Zurrumurruak eta estereotipoak ere zabaltzen dira, ezezagutzak eraginda.

Testuinguru horretan, Entretanto Entretente-Bitartean Jolasen herriko elkarteak gauzak hobetzeko pausoa eman zuen. Artehazia Kultur Berrikuntza, Arteak eta Gizartea elkarteak badu “Euskadiko Komanditario Berriak” izeneko programa bat eta bertako deialdira proposamen bat aurkeztu zuen, artearen bidez kultur arteko elkarbizitzaren alde egiteko.

Proiektua onartuta, bi urteko bidea osatu dute, pixkanaka herritarren inplikazioa lortuz, sortutako zailtasunei aurre eginez, eta aunitz ikasiz. Komanditarioen taldeak Idoia Zabaleta koreografo arabarra izan du bitartekari eta Maite Arroita jauregi

Mursego musikari gipuzkoarra aukeratu du diskoa osatzeko. Hainbat babeslerekin (Daniel&Nina Carasso Fundazioa, Conexiones Improbables, Artium Museoa eta Lakuako Fábricas de Creación) aitzinera egin duen egitasmoaren kontakizuna duzue hau, artistaren, bitartekariaren eta herritarren ahotsetan.

MURSEGOREN ETXEAN

Maite Arroita jauregi Eibarko bere etxeko atea zabaltu dizkigu eta diskoko abestiak jarri dizkigu ordenagailuan. Ohe gainean du txeloa, garbitu berri. Azkenaldian inoiz baino gehiago erabili duen organoa ere ez

dago urrun. Youtuben bilatzen dituen abestiekin laguntzen ditu azalpenak, joan den urteko neguan lehendabizikoz Oionera joan eta bere burua aurkeztu zuenean egin zuen gisan. «Gustuko kantuak hartu nituen, nire bizitzan garrantzitsuak izan zirenak, eta track bat egin nien, nire soinuazko istorioarekin».

Musika horren gainean solasean aritu, eta ariketatxo bat proposatu zien, kantuekin lotua hau ere, elkar ezagutzeko. Proiektuarekin zituzten itxaropenez ere mintzatu ziren. «Mariak kulturen arteko elkarbizitza sustatzea nahi zuen, baita haurrak, emakumeak eta hizkuntza

desberdinak agertzea ere; Agatak jendeak beste jendeari begiratzea bilatzen zuen, jende askok parte hartzea...» irakurri digu eibartarrak apuntez betetako bere koadernotik.

Herriaren errealitatea ere ezagutzen hasi zen, urrun dagoelako Hezkuntzako zerrendetan inork joan nahi ez zuen herri gisa soilik ezagutzen baitzuen Oion. Bere bigarren erreferentzia PPko alkatearen bideo famatua zen. «Gerora jakin dut gure kuadrillan asko estimatzen dugun Pierola ardoa Oionen egiten dela». Bitxikeria gisa, lagun bat du irakasle gisa joan eta bertan gelditu dena eta proiektuan egin dute topo.

Idoia Zabaletak gonbidatuta sartu zen proiektuan Mursego. Dantzaria miresten zuenez, aunitz erakartzen zuen berarekin lan egiteak eta baiezkoa eman zion. Koreografoaren Azala espazioan elkartu eta aurreproiektua osatu zuten. «Artelana diskoa izango zela erabakitzean lasaitua hartu nuen, jakin gabe zer zetorkidan...».

Abestiak definitu zituzten. Lehena, “Sansol”, aurora izeneko kantuen bidez egun berriaren etorrera ospatzeko oiondarren



Taldea eskolan. Idoia Zabaleta ezkerretik hasita seigarrena da. Jon URBE | ARP

«LAN MIKROPOLITIKOEZ OSO HARRO NAGO»

Lehen aldiz egin du bitartekari lana Idoia Zabaleta koreografoak “%100 Oion” proiektuan. Eta, erran duenez, hagitz modu literalean bete du funtzio hori, denaren erdian egon baita. «Oso proiektu polita eta konplexua izan da».

Aurrena, Komanditario Berriak Oion taldea osatu zuten dozena bat lagunek: eskola publikoko irakasleak, arabiar

komunitateko gizon-emakumeak, herritarrak, duela hainbat urte etorritakoak, bertan jaiotakoak... Oionen kultura ugari daude, bizikidetza ez da erraza, eta proiektu honek erronka horri erantzuten dio.

«Hilabete behin bildu eta talde dinamika egin ditugu. Herria eta bere ezaugarriak ezagutzen lagundu didate. Gasteizkoa naiz eta Langraizetik oso gertu bizi naiz. Langraiz eta Oionen artean badira antzekotasunak. Oionen bal-

dintza batzuk areagotzen dira, batik bat mugako herria delako, Logroño ondoan dagoelako. Beren erronkak berriro definitu genituen, ideien atzean dauden argiak eta itzalak ikusiz. Aldi berean, sorkuntza klaseak, dinamika eta informazioa eskaini nizkien. Bena-tan talde bat osatu genuen».

Ikusitakoarekin, beren erronkak jorrazteko artelan bat proposatu zien. «Zurrumurruen eremuan ari ginez, nahiko garbi ikusi nuen

Urrun dagoelako Hezkuntzako zerrendetan inork joan nahi ez zuen herri gisa soilik ezagutzen zuen Oion. Bertze erreferentzia PPko alkatearen bideo famatua zen. Ardoa ere bai

«Idoia Zabaleta miresten nuenez, asko erakartzen ninduen berarekin lan egiteak. Diskoa izango zela erabakitzean lasaitua hartu nuen, jakin gabe zer zetorkidan...»

Maite Arroita Jauregi,
herritar batekin eta Idoia
Zabaletarekin, Oiongo
kaleetan barna.
%100 OION



«Harremanak era naturalean sortu dira»

Maria Ezkerro Entretanto Entretente-Bitartean Jolasean Oiongo elkarteko kidea da. Proiektuaren bultzatzaileetako bat. «Oso aberasgarria izan da artea eta jendarte nahastuz osatu dugun prozesua, bai elkartearentzat eta baita niretzat pertsonalki ere». Artehaziaren deialdira proposamena aurkeztu zutenean ez zekiten zer aterako zen. «Egingo genuena esplikatu genuen zer egingo genuen jakin gabe. Zoragarria izan zen jendeak konfiantza izan zuelako gugan». Diskoarekin hasi zirenean jende ugari inplikatu zen: aurorotarrak, abesbatza, bertsolariak, herritarrak... «Ez dizut esango erraza izan zenik, baina pozik gaude emaitzarekin. Proiektuan parte hartu dutenek komentatzen digute badutela sentsazioa herritarrek elkar gehiago agurtzen dutela eta gehiago hitz egiten dutela». Gainera, harremanak naturalki sortu dira. «Kantatzera etorri gara. Zu Pakistango jatorrikoa zara, ni Oionekoa, eta elkarrekin ari gara».

Biharkoa prestatzeko entseguarekin ari dira eta herritarrak pozarren daude, hunkituta ere bai abestiak entzutean. «Ze polita, gu gara!» diote. Proiektua ez da hemen bukatzen; zurrumurruen abestia, adibidez, egokia da lantzeko. «Hainbeste oiondar inplikatu eta gero, diskoa denona izango da. Aldaketak epe luzekoak dira, baina kontent gaude. Umeak entseatzeko elkartzen zirenean ama marokoarrak eta bertakoak elkarrekin hizketan eta kantatzen ikusten genituen». Ez du integrazioaz solas egin nahi, azkenean bi norabidetako gauza bat delako hau. Nahiago du elkarbizitzaz eta harremanez mintzatu.

soinuekin erlazioa izan behar zuela. Gehien bultzatu nuen proposamena Mursegorekin disko bat egitea izan zen. Argi nuen proiektuaren gidariak emakumezkoa izan behar zuela, baita euskaraz hitz egin behar zuela ere. Konplizitate figura bat ere behar nuen eta Maite ezagutzeak ziurtasuna ematen zidan. Maite bertara joan eta aurkeztean, guztiek baietz esan zuten», kontatu du Azala espazioa kudeatzen duen artistak.

Aitzinetik, taldeak artelanak bete behar zituen baldintzak ezarri zituen. Garbi zuten jende ugari parte hartu behar zuela, horrek izan behar zuela muina. «Beste etapa bat hasi genuen orduan. Maitek aurreproiektu bat aurkeztu zuen, abestiak

zeintzuk izango ziren, ze gai ukituko zituzten, musika egiteko moduak... Zortzi abesti daude; batzuk berak egin ditu, besteak herriko taldeek, batzuetan abeslariak eskatu ditugu boluntario gisa, beste batzuen letrak prozesu kolektiboan egin ditugu...». Ondotik, konposizio lanetan hasi zen Mursego, eta, 2017an, abesbatzak osatu, entseatu eta grabaketa egin zuten.

KEXEN ABESBATZA

“Öyenos Oion” abestian, Finlandiako proiektu bat egin zuten, kexen abesbatza. «Postalak utzi genituen herrian zehar jendeak bertan kexak idazteko. Guztiak batu eta horiekin osatu genuen abesbatza. Batzuk umeek idatzia dira, ez dietela enparan-

tzan baloiarekin jolasten uzten esanez, edo etxeko lan asko eta nekezak dituztela. Besteek diote zerbitzu falta dagoela autobusez Gasteizera joateko. Usain txarra dagoela dio zenbaitek. Badira kexa unibertsalagoak: Alepon gertatzen ari dena, harresiak eraikitzea...».

Aunitzek kexak eta nahi zena nahasi eta eskakizunak jarri zituen: ludoteka, litxarkeria gehiago, opariak...

«Jende askori ez zitzaion gustatu bere herriari buruz gauza batzuk entzutea, eta eurek idatzitako kexak ziren! Beste batzuk, aldiz, indar gehiagoz batu ziren proiektura»

«Euskara gutxi hitz egiten dela eta ez dela posible bertan euskaraz bizitzea izan da askotan errepikatu den kexa bat. Gazteentzat oso gauza gutxi daudela ere bai. Atzeritarrek ez dutela lan egiten idatzi dute beste batzuek. Txinatarren denda gominolak hozkatuak saltzen dituztela besteek. Ia berrehun kexa jaso genituen. Gero aukeraketa egin genuen, 7 minutuko kantua osatzeko».

Abestia Whatsapp bidez zabaldu zen, oraindik prest ez zegoela, bai Oionen eta bai inguruko herrietan. «Jende askori ez zitzaion gustatu bere herriari buruz gauza batzuk entzutea, eta eurek idatzitako kexak ziren! Beste batzuk, aldiz, indar gehiagoz batu ziren proiektura. Adostasuna behar zen, eta jendea konbentzitzen aritu naiz denbora emateko proiektuari. Aldi berean, jende izugarria ezagutu dugu. Une oso polemiko bat egon zen eta lan diplomatikoagoa egitea tokatu zitzaidan. Ordura arte artearen eta jendartearen arteko bitartekari nintzen eta momentu horretan diplomazia egin nuen herriaren barneko hainbat estamenturen artean».

ohituran oinarritua dago. «Auroratar batzuei ez zitzaien gustatu gure letra. Biharamunean, Luisma letrarekin agertu zen. Gaupasa egin zuen, kafe litro batzuk eta hiru pakete zigarrarekin. Hunkitu ninduen»

Biharamunean, Luisma letrarekin agertu zen. Gaupasa egin zuen, kafe litro batzuk eta hiru pakete zigarrarekin. «Gure letra, bere nahia, gure elkarriketa... kontuan hartuta idatzi zuen. Hunkitu egin nintzen. Ni negarez eta bera ere oso pozik. Kideei ere gustatu zitzaien. Luismak hartu zuen entseguen ardura».

“Habibi maitea. Tala al Badru Alayna” bigarren kantua orain dela 1.450 urte baino gehiagoko arabiar kantu tradizional baten bertsio berria da, euskaraz eta arabieraz abestua. «Arratsalde batean emakume arabiarrekin elkartu ginen eta abesti tradizionala beren moduan kantatu zuten. Asko gustatu zitzaidan».

Emakume eta umeei ongi zertorkien tonu bat bilatu eta grabazioa pasatu zien Mursegok. Herriko bertsolariek itzulpen librea egin zuten, eta bai jatorri arabiarreko haurrek bai gainontzekoek arabieraz eta euskaraz ikasi zuten. «Hala %100 bete genuen helburua. Ume guztien



«Auroratar batzuei ez zitzaien gustatu gure letra. Biharamunean, Luisma letrarekin agertu zen. Gaupasa egin zuen, kafe litro batzuk eta hiru pakete zigarrarekin. Hunkitu ninduen»

«Bertsolariek kantu arabiar baten itzulpen librea egin zuten, eta bai jatorri arabiarreko haurrek bai gainontzekoek arabieraz eta euskaraz ikasi zuten. %100 bete genuen xedea»

Maite Arroitajauregi Eibarko bere etxean, instrumentu kutunarekin.

Juan Carlos RUIZ / ARGAZKI PRESS

izeneko musika eta dantza bat zegoela ikusi zuen. «Makilekin egiten dute eta hemen ere makil dantza egiten dugula aipatu nien segituan. Asko motibatzen eta hunkitzen nau bi kultura hain desberdinek loturak edukitzeak», adierazi digu, eta bideo bat erakutsi. Gizon bat ageri da aldakak, bularra... zoragarri mugitzen. «Halako zerbait egin nahi nuen eta abestiaren bukarako zatitxoa sortu nuen, abiadura handituz».

Umeak jarri zituen bakarlari eta primeran egiten dute. «Asko entseatu dute eta horrek garrantzia eta autoestimua ematen die. Pozik daude». Bestalde, txeloarekin egin duen sarreran, emakume arabiarrek ezkontzako kantutxo bat abesten dute.

Eibar eta Oion artean grabatu dute diskoa, horrek dakartzan zailtasun guztiekin. Taldekoak Arabako Errioxan egin dituzte. «David Logroñoko teknikariak

amak ere elkartu ziren eta lehen elkar agurtzen ez zutenen artean harremanak sortu ziren».

Abestia benetakoa izatea nahi zuen eibartarrak. Musika arabiarra gustatzen zaio eta aunitz ikertu zuen horren gainean Youtube baliatuz. Oiondar komunitateko emakume asko Rif ingurukoak dira eta han Regada

Hainbertze denbora elkarrekin egonez, taldea bera ere nekatu eta gaizki-ulertuak egon dira eta hor ere tokatu zaio Zabaletari elkarriketaren bitartez ez eztabaidak alde batera uztea, horiek ere proiektuaren parte baitira, baina bai bideratzea.

«Artista moduan hankak lurrean jarri dizkit proiektuak. Oro har hala ditut, baina gehiago. Lana nahiko ondo egiten dudala ere ikusi dut, gustatzen zaidala. Ohituago nago autore izatera eta gustatu zait aldi berean inon ez eta leku guztietan egotea. Nire izenak ez du agertu behar, gauzen katalizatzailea naiz eta hori bizitzea asko gustatu zait», adierazi digu.

«Ikasi dut ere ze garaitan gauden gizakiok eta zer-nolako

arazoak jartzen ditugun ez dau den lekuetan. Zein konplexua den elkarbizitza. Etorkinei buruz ezin duzu esan etor daitezela guztiak, ezta ez daitezela etorri ere. Oso lan konplexua da. Baditut lagun arabiarrek eta ez zen berria niretzat, baina oso modu irekian eta ondo hitz egin dugu erlijioen eta kulturen arteko desberdintasunez, emakumearen rolaz, energia edo boterea non dagoen kultura desberdinetan... Lan asko egin dugu eta ikusten dugu oraindik gehiago egin dezakegula parte hartu dugun guztiok. Badaude hitz egin behar diren gauzak».

Erantsi du mekanismo bat dugula dena orokorrean hartzeko, baina pertsona bakoitza mundu bat dela. «Hori polita

da, baita hor arteak bere aurrerak badituela ohartzea ere. Leiho bat ireki da, baina hasiberriatzen dut nire burua honetan. Dena ikasteko dago». Lagunak ere badaramatza dantzariak.

JARRAIPENA

Bihar aurkeztuko dituzte abesti guztiak. Gero diskoa aterako da. «Lan handia egin da; badaude abesti batzuk Oioni opari gisa eginak, besteak unibertsalagoak dira, eta uste dut entzun behar direla. Ahalik eta gehien zabaltzen saiatuko gara». Seguru proiektuak jarraipena izanen duela. Koreografoak aitortu du «oso astuna» dela zentzu horretan eta gustatzen zaiola gauzei segida ematea. «Ez ditut erlazioak beste modu batera uler-



«Xedea ez zen disko biribila ateratzea, jendea batzea baizik, kontzientziak astintzea... Halere, musikari bezala, min ematen zidan aurora desafinatuta entzuteak. Orain gustuko dut»

«Konfiantza hartu nuen gauza asko galdetzeko. Nola kristaua izanda beste kultura bat maite dezakeen. Bizimoduan aldaketa erradikala egin du Agatak. Espiritualtasunaz berba egin dugu»

bere estudiantxo mugikorra eraman zuen zinemara. Larunbat arratsaldean 'Tala al Badru' egin genuen umeekin. Jendea etorri zen grabazioa entzutera eta ondotik tarta batekin merienda egin genuen. Ederra izan zen».

IKASGAIAK

Kantu guztiek dute beren istorioa baina ezin hemen denak kontatu. Oionen oparitu ondotik, Bide Hutsen bidez banatuko da diskoa era digitalean eta nahi duenak hortxe izanen du aukera. Elkarrizketa bukatze aldera ikasgaiez galdetu diogu musikariari eta berehala goraipatu du Idoia Zabaleta: «Jendearekin ze harreman izan duen ikasi dut, nola jakin duen une bakoitzean zer eta nola esan. Niri etxean esaten didate ziklokimikoa naitzela. Antolatzeke ere makina bat da Idoia. Berengandik asko ikasi dut arlo artistikoan ere. Kanta idazle bat deskubritu dut».

Frustrazioa jasaten edo kudeatzen ere ikasi du. «Bakarrik konposatzen eta lan egiten ohi-tuta nago. Nire mailak jartzen ditut: 'honaino helduko naiz'. Baina kasu honetan ezin izan dut hori egin. Teoria banekien, xedea ez zen disko biribil bat ateratzea, jendea batzea baizik, kontzientziak astintzea... Halere, musikari bezala, min ematen zidan aurora desafinatua entzuteak. Baina, orain, berriz, aurora gustatu egiten zait. Benetan diotsut».

Hainbertze jenderekin lan egiten ikasi du. Eta teknika. «Dena maketan egiten nuen lehengo. Nik grabatu dut dena, ordenagailuarekin borrokan. Pianoa ere ez dut inoiz hainbeste erabili eta orain erosoago sentitzen naiz. Inoiz ez dut konposatu koro batentzat ere».

Oiondarrengandik ere aunitz jaso du. «Askotik egin dugu kultura desberdintasunez, batez



ere Agatarekin. Bagenuen jakinmina. Agata kristaua zen, poloniarra, eta musulman batekin ezkontzeko bihurtu egin zen. Neska gaztea da eta gure kezka berak ditu. Konfiantza hartu nuen gauza asko galdetzeko. Nola kristaua izanda beste kultura bat maite dezakeen. Bizimoduan aldaketa erradikala egin du. Espiritualtasunari buruz berba egin dugu. Korana irakur-

tzeak lasaitzen ditu. Partekatu ala ez, uler dezaket».

Azaldu digunez, musikak hitzak ailegatzen ez diren eremu batera eraman ditu. «Jendea hunkitu da, musikak botere hori daukalako eta, Tapiak dioen bezala, libre egiten gaituelako». Irrikatzen dago bihar oiondarrei diskoa oparitzeko, beraiena dela sentitzen baitu eta guztiekin partekatzeke desiratzen baitago.

Haur eta gurasoak «Tala al Badru» abestia entseatzeko. Elkarrekin kantatzeaz gain, elkar ezagutzeko eta solas egiteko balio izan diete topaketek. %100 OION

tzen. 80 lagun inguruk parte hartu dugu zuzen-zuzenean. Alde horretatik oso eskertuak gaude, bestela ez litzateke posible izango. Arrehazia dago honen atzean. Berak gonbidatu ninduen bitartekari izateko eta nik gonbidatu nuen gero Maite artista gisa. Geruza asko dago».

Oraindik goiz da proiektuak Oion ekarri dizkion onurak antzemateko. «Baina zuzenean parte hartu duten pertsonentzat ona izan da seguru eta hori jada bada zerbait. Zurrumurruen abestiaren polemika gertatu zelarik herrian desplazamendu bat gertatu zen jende guztiaren artean. Alkateak abesbatzan abesten du, eta bere energia jarri du proiektuan, jakinda ze polemika zekarren

atzetik. Mugimenduak gertatu dira dagoeneko».

«Sentitzen dut lan bat egin dugula etorkinekin, baita euskal komunitatearekin eta emakumeekin ere. Herrian femeni-noan hitz egiten duena bezala ezagutzen naute».

Abesti bat dago berarentzat hagitz berezia, Oiongo Eh Mer-txe! rock talde gazteak Mursegorekin egindako «Matronak», herriko zaindari santuen dantzaren, «Los Patronos» dantzaren bertsioa. Herrian gatazka dago ea emakumeek dantza dezaketen ala ez, eta gazte hauek, denak mutilak, bertsio hau egitea erabaki zuten. Ildo feminis-tako letra idatzi zuten. Halako lan mikropolitikoez hagitz har-ro dago Idoia Zabaleta.



Komanditario berrien taldea, Maite Arroitauregirekin egindako bileretako batean. Aurreko argazkian, musikaria hurrekin entseatzeko. %100 OION